

Jardunaldi Irekiak (2020)

Bilboko Ingeniaritza Eskolako (BIE/EIB) **Jardunaldi Irekiak** datorren **martxoaren 4an (asteazkena)** eta **martxoaren 5ean (osteguna)** izango dira. Jardunaldi hauetan unibertsitate aurreko ikasleei aurkeztuko zaizkie Bilboko Ingeniaritza Eskolan eskaintzen diren graduako eta masterreko titulazioen oinarrizko ezaugarriak. Bestalde, ikasleei erakutsiko zaie Ingeniaritzako ikasketek duten balio praktikoa hainbat arlotan, besteak beste, Industrian, Komunikazioan, Eraikuntzan, Energian, Garraioan edo Medikuntzan, baita Itsasketako eta Nautikako ikasketek dutenak.

Jardunaldi Irekiak aukera paregabea dira gure titulazioen eskaintza eta irteera profesionalak ezagutzeko eta gure Eskolako laborategiak, ikerguneak eta instalazioak bertatik bertara ikusteko.

Eskaintza

Graduak	Eguna- Ordutegia		Helbidea
<u>INDUSTRIA Blokea</u> <ul style="list-style-type: none"> • Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza • Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza • Industria Teknologiaren Ingeniaritza • Ingeniaritza Elektrikoa • Ingeniaritza Mekanikoa • Ingurumen Ingeniaritza 	martxoak, 4 - 16:00-18:30	martxoak,5 10:30-13:00 16:00-18:30	Euskara: I Eraikina Sarrera Torres Quevedo Ing. plaza 1. Bilbao Gaztelania: II Eraikina Sarrera Rafael Moreno "Pitxitxi", 2. Bilbao
<u>IKTen Blokea</u> <ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza • Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritza 	martxoak, 4 (gaztelania) 16:00-18:30	martxoak, 5 (euskara) 16:00-18:30	I Eraikina Sarrera Torres Quevedo Ing. plaza 1. Bilbao
	martxoak, 5 (euskara) 16:00-18:30		
<u>ERAIKUNTZA Blokea</u> <ul style="list-style-type: none"> • Ingeniaritza Zibila 	martxoak, 4 16:00-18:30		Euskara eta Gaztelania: II Eraikina Sarrera Rafael Moreno "Pitxitxi", 2. Bilbao
<u>ITSASKETA/NAUTIKA Blokea</u> <ul style="list-style-type: none"> • Itsasketa • Nautika eta Itsas Garraioa 	martxoak, 5 16:00-18:30		Euskara eta Gaztelania: Portugalete Eraikina M ^a Díaz de Haro , 68. Portugalete

Egitaraua

- Bertaratuei harrera
- Eskolaren aurkezpena, ikasleei zuzendua, BIE/EIBko zuzendaritza taldearen eskutik
- Gure standetara, laborategietara eta ikerguneetara bisita
- Jardunaldiaren balorazioa eta bisitaren amaiera

Informaziorako eta izena emateko (2020ko otsailaren 17tik 23ra)

<https://www.ehu.es/eu/web/sou/jardunaldi-irekiak>

Eskolako eraikinen kokalekua

<https://www.ehu.es/eu/web/ingeniaritza-bilbo/kokalekua-eta-kontaktua>

